



FORO DE BARRIO
AUZO-EZTABAIDAGUNEA
2018
SAN JORGE / SANDUZELAI

Fecha / Data:	2018/05/15
Hora / Ordua:	18:30
Lugar / Kokalekua:	Sanduzelaiko Civivoxa
Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:	Aritz Romeo
Participantes / Parte-hartzaileak:	13 emakume eta 24 gizon. 37 lagunetatik, 10 adingabeak dira.
Otros / Bertze batzuk:	
Moderadora / Moderatzailea:	Dinamizazioko teknikaria: Ana Etxaleku Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzua: Borja Luque, Gabriel de Diego, Maitane Urmeneta eta Elena Esparza

Apertura / Hasiera

Ana Etxaleku Herritarren Partaidetza eta Gizarte Ahalduntzeko Alorreko teknikariak ongietorria egin die Sanduzelaiko auzo-eztabaidagunera etorri diren lagunei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik. Jakinarazi dute ezen, herritarren eta udalaren arteko topaketarako eta elkarrizketarako esparru bat izateaz gain, auzo-eztabaidaguneeen formatu berria esparru egokia dela auzoari berari eragiten dioten zenbait gairi buruzko diagnostikorako eta lan egiteko.

Hala, auzo-eztabaidaguneeak bi atal izango ditu. Lehenbizikoan, Aritz Romeo auzo-zinegotziak eta Juan Castro komunitate-poliziak erantzun, eta egoeraren berri emango dute; horrez gain, "Auzoak informatzen du" izeneko atal bat izango da, eta horretan Sanduzelain gaur egun egiten ari diren hiru ekimenen berri emango da.

Auzo-eztabaidaguneearen bigarren atalean, lau lantalde eratuko dira, gai banari buruz.

1. Haurrak, nerabeak eta gazteak
2. Hiriaren etorkizunari buruz pentsatzea
3. Mugikortasuna eta bide-segurtasuna
4. Adinekoak

Landuko diren gai zehatzago horiez gain, banakako fitxetan jasoko dira edozein motatako gorabeherak, kexak eta erreklamazioak, eta dagozkien udal-alorrei helaraziko zaizkie, kasuan kasuko tratamendurako. (El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du)



El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

Aritz Romeo zinegotziak hitza hartu du, eta bertaratuei ongietorria egin, eta eskertu die auzo-eztabaidagunera etorri izana.



Jarraian, Romeok labur azaldu du urtean zer esku-hartze egin dituen udalak auzoan, eta nabarmendu du ERDIGUNE proiektua; horren barruan, batik bat, espazio publikoa mantentzeko lanak egin dira.

1. Sanduzelai etorbideko erdibitzailea luzatzea Miluzeren parean (6.000 euro).
2. Cuatrovientos institutuko espaloia luzatzea (5.000 euro).
3. Kaiko kaleko txorkoak kentzea (4.602,64 euro).
4. Kaiko kaleko oinezkoen pasabideetako argiztapena.
5. Simonena doktorearen kaleko, Irati Errekaren kaleko eta abarretako mantentze-lanak.
6. Villavesaren geralekua lekuz aldatzea (auzo-elkartearen aspaldiko eskera); oraindik aldatzeko dago bertze noranzkoko geralekua.
7. Iparralde institutua: fatxada.
8. Simonena doktorearen kaleko oinezkoentzako pasabide bat asfaltatzea (5.000 euro).
9. San Jorge ikastetxe publikoa: amiantozko estalkiak kentzea (88.000 euro); sukalde-eremuko sabai aizuna eta eskolaurreko hegala eraberritzea.*
10. Sanduzelai ikastetxea: patioa konpontzea.*
** Bi ikastetxeetan zenbatetsitako zenbait obra Hezkuntza Sailak Iruñeko ikastetxe guztiei buruz egingo duen lehenespenaren mende daude.*
11. Biurdana parkeko komuna abian jartzea (33.000 euro).
12. Kulturari dagokionez, 'Ibaiertzean' jaialdiaren lehen edizioa egin zen.
13. ERDIGUNE:
 - Proiektua arkitektura-talde bati esleitzea onetsi da.
 - Proiektuaren asmo orokorra: Auzoa ibaiaren ingurutik banantzen duen oztopo fisikoa kentzea.
 - Patinodromoa: udalaren hirigintza-planaren arabera, Santa Bizenta Maria kaletik ibairantz ibai-parke tratamendua du, eta kale horretatik auzorantz, berriz, hiri-plaza tratamendua.



- Gridillaseko etxadia kenduko da, eta eraikin berri batekin osatuko.
- Diziiplina anitzeko proiektua denez, ez hirigintzakoa bakarrik, mugikortasun-alderdiari ere erreparatuko zaio. Horren helburua da ERDIGUNE eremuko zirkulazioa bigarren mailakoa izan dadin prestatzea, horrela oinezkoentzako espazioa irabaztea eta auzotarrentzako eremu atseginoago bihurtzea. Esku-hartze horretarako proiektu bat dago, Juan Castro komunitate-poliziak egindakoa.

Juan Antonio Castrok, Sanduzelai auzoko komunitate-poliziak, hitza hartu du, eta azken urtean zehar egindako jarduketak erreparatu ditu.

- **JARDUKETA OROKORRAK:**

Etengabe egiten zaizkie bisitak auzoko zerbitzu eta baliabideei, eta haiekin lan egiten da, eta eskatu ahala laguntza ematen zaie: Ikastetxeei, farmaziei, ostalaritzako lokalei, zenbait saltegiri, auzoko unitateari, osasun-zentroari, Civivoxari eta liburutegiari, GEZKri eta abarri. Horretaz gain, kontrolak egiten dira garaje komunitarioetan eta kontsumo-eremuetan. Behar diren azterlanak eta esku-hartzeak ere egiten dira hirigintzari, hiri-altzariei, zirkulazioari eta mugikortasunari dagokienez. Ekintza orokor horiez gain, bertze zenbait esku-hartze sakonago ere egin dira, honako arlo hauetan: udako futbol-lehiaketa (aurten bertan behera geratu da), Aquavoxeko igerilekua eta hango erretegia, eta skate-pista lekuz aldatzea.

- **MUGIKORTASUNAREN ARLOKO JARDUKETAK ETA PROPOSAMENAK**

1. Autobus geltoki berriak Sanduzelai etorbidean
2. Errepideetako erdibitzailleetako tartekak: oinezkoak pasatzen dira horietatik. Proposamena: altuera ertaineko metalezko hesi bat jartzea, pertsonak pasa ez daitezen.
3. Oinezkoentzako pasagune berriak behar dira: goratuak eta seguruak.
4. Bidegorria eta bizikleta-eremuak. Proposamena: seinaletika hobetzea, eta berriz margotzea. Bertze proposamen bat: bidegorriaren zoladura aglomeratuzkoa izatea.
5. Bizikleta-aparkalekuak jartzeko proposamena; Renfen eta Civivoxen jar litezke.
6. Kaiko kaleko bizikleta-eremua aldatzeko proiektua.
7. Semaforoak erregulatzea.
8. Aparkaleku berriak egin litezke auzoko eremu libre batzuetan.



- ERDIGUNE PROIEKTUA

Juan Antonio Castro komunitate-poliziak ERDIGUNE eremuan zirkulazioa eta aparkalekua berrantolatzeko egindako proiektuaren barruan, ibilbiderako bi proposamen aztertu, eta udalari proposatu zaizkio; biek kontrolatu gabeko zirkulazioa murriztuko lukete eremuan, eta atseginago egingo lukete auzoko eremu hori. Horretaz gain, oinezkoei lehentasuna ematen jarraitzeko, auzoko espaloiak zabalduko lirateke, eta oinezkoentzako bide seguruak egingo lirateke.

El barrio informa / Auzoak informatzen du

Sandubitxia

- Ana eta Eneko Sanduzelaiko talde teknikoko kideek aurkeztu dute ekimena, zeinak Andaluziako herritarren partaidetzako Behatokiaren sari bat irabazi baitu.
- Auzoko adingabeek auzoaren irudiari buruz egindako haurrentzako plan bat da; helburua da haurren ikuspegia txertatzea ERDIGUNE proiektuaren barruan.



Sanduzelai Kultura Mix

- Itziar Murok azaldu du duela urtebete sortu zela taldea. Kultura-aniztasuna lantzen duen elkarte bat da, eta elkarbizitzarako eta partaidetzarako esparruak bilatzen ditu.
- Talde eragileari begirako barne-jarduerak zein auzotarrentzat zabalik dauden jarduerak egiten dituzte. Esaterako, kulturen arteko askari bat, bakoitzak jateko zerbait eramanda.

Merkatarien eta erabiltzaileen elkarte


- Antonio Salinasek elkarte berria aurkeztu du: auzoko merkatariek eta haien saltegiatoko erabiltzaileek osatzen dute.
- Helburua da elkarrekin lan egitea negozio txikiak sustatzeko eta auzoa biziberritzeko.

Grupos de Trabajo / Lantaldeak

Azkenik, bi lantalde egin dira, taldeka gogoeta egiteko auzoko arazoei buruz. Lehenbizikoan, auzoko mugikortasunaren eta hirigintzaren inguruan lan egin nahi duten lagunek parte hartuko dute; bigarrena, berriz, bideratuago dago komunitate-bizitzaren eta bizikidetzaren inguruan lan egitera.

Taldeetan honako lan-dinamika hau erabiliko da: gogoeta egingo dute aukeratutako gaiaren arloan zer behar dauden auzoan, eta, horiek abiapuntu hartuta, aldaketarako proposamenak egingo dituzte. Gogoeta errazteko, zenbait koloretako post-itak, panelak eta auzoko mapak erabiliko dira, eta, horrez gain, Partaidetzako Alorreko Dinamizazio Zerbitzuko zenbait langilek gidatuko dituzte bi taldeak.

Amaitzean, denen aurrean azalduko dute talde bakoitzean landutakoa.



1. TALDEA: ESPAZIO FISIKOA (HIRIGINTZA, OBRAK, INGURUMENA, MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA BIDE-SEGURTASUNA)

1. Autoek gaizki aparkatzen dute, izkinetan edo zebrabideetan traba egiten.



2. Ikuspen egokia duten eremuak jartzea kaleak gurutzatzeko.
3. Sanduzelai ikastetxean semaforoa jartzea. Reparaz kalearen eta Sanduzelai etorbidearen arteko bidegurutzean.
4. Nafarroa etorbideko 3.eko etxabea oso egoera txarrean dago.
5. Leku egokiak behar dira kartelak jartzeko.
6. Eremu batzuk "zaindu gabe" daude.
7. Hondakinak, trasteak, zaborra, zikinkeria, grafitiak eta kartelak fatxadetan... ugari daude.
8. ERDIGUNE proiektua bizkortzea. Lan handia dago egiteko, eta sobera atzeratzen ari dira jarduketak.
9. ERDIGUNE proiektuaren epeak arintzea. Parkearen proiektua ez ezik, eraberritze integrala ere bai, diagnostikoa kontuan hartuta.
10. Reparaz kaleko 6.aren pareko semaforoa gaizki erregulatuta dago.
11. Etxebizitzetan errotzeko plana. Mendetasun-egoeran dauden adinekoen eta jende gaztearen beharrei konponbidea ematea. Gridillasen etxebizitzak eraikitzen badira, trukatu daitezke.
12. Berchitoseko errepidea. Bidegorria bi noranzkoetan.
13. Sanduzelai etorbideko erdibitzailea garaiago egin behar da.
14. Zirkulazioa lurperatzea izan liteke Nafarroa etorbiderako konponbide bat.
15. Lehentasuna eman behar zaie oinezkoei, eta ez autoei.
16. Hiri-baratza eta konpost-egite komunitarioa.
17. Bizkor betetzea udalaren konpromisoak.
18. Argiztapen urria dago auzo osoan.
19. Bizikletek oinezkoen esparrua inbaditzen dute.
20. Civivoxa herdoilduta eta andeatuta dago.
21. Sanduzelai etorbidea berrikusi behar da, zirkulazioa eta abiadura murrizteko, bi aldeen arteko lotura hobetzeko eta lehentasuna emateko bizikletei eta villavesei.
22. Mugikortasun orokorreko plan bat, auzoko toki garrantzitsuetara iristeko "bide seguruak" egiteko (ikastetxeak, Civivoxa, osasun-zentroa...).
23. Igogailu bat Trinitariosen, Sanduzelai eta Donibane lotzeko.
24. Trinitarioseko igogailuaren proiektuari berriz heltzea.
25. Autobus-geralekua Nafarroa etorbidean.
26. Auzoan dagoen zirkulazio handiaren ondorioz, inpaktu handia egiten zaie ingurumenari eta airearen kalitateari. Neurketak egitea.
27. Zubiaren azpiko estolda.
28. Ibaiaren ur-goraldien arazoa konpontzea, futbol-zelaiaren egoera andeatzen baitute.
29. Futbol-zelaiko harmailetan eremu estali bat prestatzea.
30. Sanduzelaiko igerilekuetan kirol-eremu bat proiektatzea eta egikaritzea; kanpoko pistak izan behar ditu.
31. Epe ertain-luzerako EDUSIren moduko plan estrategiko bat.
32. Sanduzelai-Buztintxuri tuneletan argi gutxi dago, eta ez dira seguruak.
33. Kartzelarako garraioa.
34. Uholde-arriskua duten Arga ibaiko eremuak.
35. Bizikletetarako aparkaleku estaliak jartzea.



2. TALDEA: PERTSONAK (HAURRAK, NERABEAK, GAZTEAK, ADINEKOAK ETA MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDENAK)

1. GAZTEAK:

- Aisialdirako eremu estaliak, gai hauen inguruko jarduera zuzenduak egiteko: kirola, landareak, animaliak...
- Auzoan wifi-guneak jartzea.
- Jolas-eremu gehiago.
- Lokalak

2. NAGUSIAK:

- Komun publikoak.
- Aisialdirako eremuak eta kirola egiteko parkeak.
- Adinekoentzako jokoak (igerilekuetan, kasu).
- Elkartzeko lokal eta guneak.
- Jarduera gidatuak/zuzenduak.

3. OROKORRA

- Denbora-bankua.
- Gauzak trukatzeko elkartasun-denda.
- Irargarki- eta informazio-taula.
- Segurtasun eta zaintza handiagoak.
- Auzoa biziberritzen laguntzeko jarduerak.





El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du

GORABEHERAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK / PROPOSAMENAK

- Oinezkoen pasabideak oso andeatuta daude auzo osoan.
- Argiztapena urria da auzo osoan.
- Herritarren segurtasunik eza.
- Autoak bigarren ilaran egoten dira, eta oinezkoen pasabideak ixten dituzte.
- Villavesaren lineek maiztasun handiagoa izatea.

- Institutua irekitzen denean, kontuan izan behar da Orkoiendik datozen autobusak zer noranzkotan gelditu behar duten, kaleetako noranzkoak erabaki baino lehen.
- Ibilbideak aldatzeko proiektuetan ahalik eta aparkaleku gehien jarri behar dira. Auzoan arazo larria dago, eta areagotu egingo zaigu. Arren, kontuan izan.
 - Kontaktua: itzimuro@hotmail.es

- Kartzelarako garraioa.
- Civivoxaren kanpoaldea herdoilduta dago.
- Trinitarios-Donibane igogailua.
- Zabor-edukiontzietan traste anitz uzten dituzte.
- Uholde-arriskua duen Arga ibaiko eremua.
- Trenbidearen azpitik pasatzeko guneak ez dira seguruak, eta argi gutxi dute.
 - Kontaktua: Fernando, 663 194 677

- Sandua pasealekuaren gaineko ibilgailuentzako pasabideak arriskutsuak dira.
- Aparkaleku-arazoak izaten dira asteburuetan, Renfera ibilgailu anitz jaisten



baitira.

- Ikuspen txarra dago pasabideetan, gaizki aparkatutako autoen erruz.
- ERDIGUNE proiektua bizkortzea.
- Zebrabide aitzinatuak, pasatu beharreko tartea txikiagoa izan dadin.
- EDUSI beharrezkoa da: Auzorako epe ertain-luzerako plana.
 - Kontaktua: Joseba Arbaiza: sebasarba@hotmail.com

- Oinezkoen segurtasunik eza, auto anitz baitago.
- Ingurumen-hezkuntza falta da, baita arlo horretan hezteko eta zehatzeko polizia-agentek ere.
- Udalak ez ditu bere eginkizunak bete zenbait mantentze- eta berritze-lanetan.
- “Oztopo” gehiegi.

- Reparazeko semaforoa gaizki erregulatuta dago.
- Civivoxeko kanpoaldea konpontzea (zutabeak).
- Autoak izkinetan aparkatzen dituzte, eta zebrabideak oztopatzen dituzte.
- Biziki egoera txarrean dago etxabe estali bat (Sanduzelai etorbidearen eta Nafarroa etorbidearen arteko lurpeko pasabideko bidegurutzean).
- Iturri bat behar da Reparazeko parkean.
- Mugikortasuna berrantolatu behar da auzoan.

- Esku-hartzeak motel doaz (ERDIGUNE).
- Funtsik gabeko erantzunak eman zaizkie auzo-elkarteak egindako eskaerei.
 - Kontaktua: avsanduzelai@hotmail.com



- Autoek espazioa okupatzen dute.
- Zenbait espazio/eremu egoera txarrean daude: Fleming, Tasubinsa...
- Ataripeak konpontzea.

- GEZK hobetzeko proiektu bat egin behar da, eta Karrikaguneko zein Gridillaseko Txaleteko jarduketan egutegia finkatu behar da.

- Gazteendako/nerabeendako eremu eta jarduera gehiago.
- Liburutegiak wifi-sarbidea ematea, eta bertze wifi-gune batzuk ere jartzea.

- Haurrendako eta gazteendako eremu egokiak.

- H-ko plaza txukuntzea eta erabiltzea.
- Hobeki garbitzea Nafarroa etorbidea, galdaren eremuan.
 - Kontaktua: piliredondogarcia@gmail.com

- Txakurrendako parke bat.
- Igerilekuan ur beroko dutxak jartzea.
 - Kontaktua: listeempleo@gmx.es / 628 237 887

- Txakur-kaken eta -txizen arazoa konpontzea.
- Jose Alfonso doktorearen kaleko etxebizitzaren metalezko profilak zikin eta andeatuta daude.
- Trinitarioseko igogailuaren proiektuari berriz heltzea. Erdialdearekin

